

Erakunde Txostena - GASTUAK
Memoria Organismo - GASTOS

ADM.ERAK.AUTON./ ORG.AUTON. ADVOS.	ATALA / SECCION	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia		
Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua azkendu egin zen 2012ko azaroaren 30ean, urriaren 31ko 7/2012 Foru Arauaren bitartez. Ekitaldi horretan, 2012. urterako hasierako aurrekontua guztira 1.249.000 eurokoa zen. Hala ere, Institutua azkendu egingo zenez, azkentzeko datatik aurrera iraun zezakeen proiektu berririk ez zen abiarazi, eta, hortaz, hasierako aurrekontutik 505.000 euro gauzatu ziren.		El Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia ha sido extinguido el 30 de noviembre de 2012 mediante Norma Foral 7/2012, de 31 de octubre. Durante este ejercicio dispuso de un presupuesto inicial para el año 2012 ascendente a la cantidad total de 1.249.000 Euros. No obstante, y dado que el Instituto iba a ser objeto de extinción, no se abordaron proyectos nuevos que pudieran tener una duración superior a su fecha de extinción por lo que de ese presupuesto inicial se ejecutaron 505.000 euros.
Jarraian, kapituluaren arabera azterketa soila egiten badugu, ohar hauek egin daitezke, 2012ko aurrekontua betearazteko mailari dagokionez.		Seguidamente, realizando un somero análisis por capítulos, se pueden formular las siguientes observaciones, en cuanto al grado de ejecución del presupuesto 2012 se refiere.
II. kapitulua. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak.		Capítulo II. Gastos en bienes corrientes y servicios.
Gure aurrekontuko II. Atalean zenbait partida aurrez ikusi dira azterlan eta lan teknikoak egiteko, argitalpenetarako eta estatistikako foru zerbitzuen etengabeko mantentzerako; horregatik, gastuetarako gure aurrekontutik aurrekontu zuzkidura handiena du, alde handiarekin, estatistikari lotutako informatika zerbitzuen mantentzearekin batera, logikoa denez langileen gastuen atala kenduz.		El Capítulo II de nuestro presupuesto contempla las partidas correspondientes a la realización de estudios y trabajos técnicos, la de publicaciones, y el mantenimiento continuo de los servicios forales de estadística, por ello, su dotación presupuestaria es con creces la más amplia, junto con la de mantenimiento de servicios informáticos vinculados a la estadística, de las correspondientes a nuestro presupuesto de gastos, descontando, como resulta lógico, el capítulo de gastos de personal.
Ingurumeneko kudeaketa-eredu iraunkorra garatzen amaitu da, gobernantzaren bitartez. Horretarako lankidetzak hitzarmena sinatu da Deustuko unibertsitatearekin.		Se ha finalizado el desarrollo de un Modelo de gestión ambiental sostenible a través de la gobernanza, mediante un convenio de colaboración con la universidad de Deusto.
Ekitaldi honetan amaitu da, gainera, EHUrekin sinatutako lankidetzak hitzarmena, Bizkaiko animalia exotiko inbaditzaileei buruzkoa.		Se ha finalizado también en este ejercicio un convenio de colaboración con la UPV sobre la fauna exótica invasora en Bizkaia.
Arestian aipatu lanaren emaitzak lan honetan argitaratu dira: "Fauna exotiko inbaditzailea Bizkaian/Fauna exótica invasora en Bizkaia".		Se ha recogido en una publicación "Fauna exotiko inbaditzailea Bizkaian/Fauna exótica invasora en Bizkaia" el resultado del estudio citado anteriormente.

Erakunde Txostena - GASTUAK
Memoria Organismo - GASTOS

ADM.ERAK.AUTON./ ORG.AUTON. ADVOS.	ATALA / SECCION	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia		
Amaitu da hurrengo lanaren idazketa: "GR 123 ibilbidea (Bizkaiko Bira) egokitu, zaharberritu eta seinaleztatzeko obren proiektua". "Argiteria publikoari eta kanpoko argiteriari lotutako jardunbide egokien eskuliburua" banatu zaie esparru honetan eskumena duten lurralde historikoko administrazio publikoei, erabilgarria izan daitekeelako esparru horretan ardurak dituzten erakundeentzat. Helburua energia aurrezte eta argi kutsadura ahalik eta txikiena izatea da; eta eskuliburuak Bizkaiko Lurralde Historikoko argi kutsadurari egindako azterlan bat hartu du oinarritzat. Estatistika-planak eta -programak egitea barruan, lurraldeari buruzko estatistika-informazioa hamaika hilabetetan zehar mantendu da, eta ez hasieran aurreikusitako hamabi hilabeteetan zehar; erakundea desegin arte mantendu da, alegia. VI. kapitulua. Benetako inbertsioak: Oro har Lantik S.A.-k BII-ri laguntza ematen dioten informatika aplikazioak mantendu eta garatzera bideratutakoa, Institutua azkendu arte.		Se ha completado la redacción del "Proyecto de ejecución de obras de acondicionamiento, restauración y señalización del Sendero GR 123 – Bizkaiko bira". Se ha procedido a la distribución entre las administraciones públicas competentes en la materia del Territorio Histórico un "Manual de Buenas Prácticas en alumbrado público y alumbrado exterior" por entenderse de utilidad directa para cuantas entidades tengan responsabilidades en la materia de cara a conseguir un ahorro energético y minimizar la contaminación lumínica y derivado de un estudio previo sobre la contaminación lumínica en el Territorio Histórico de Bizkaia. En referencia a la elaboración de planes y programas estadísticos, cabe señalar el mantenimiento de la información estadística relativa al Territorio durante once meses en lugar de los doce previstos inicialmente, hasta la fecha de extinción del organismo durante. Capítulo VI. Inversiones reales: Dedicada fundamentalmente al desarrollo y mantenimiento de las aplicaciones informáticas que dan soporte al ISB por parte de Lantik S.A., hasta la extinción del Instituto.